

B

BARREN

TOKIKOM

Senegaldik Europa amestura

Moru Kante
saltzaile ibiltaria





OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higiena eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIA!
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, es- triak)

Osasunerako ariketa agin- dua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirridulariaren biomekani- ka (kalak, ergonomia bizikle- tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628

edf
ELGOIBAR DANCE FESTIVAL

UZTAILAK 05 LARUNBATA
OPEN AIR - ORDUA 15:00H

ALBITZURI INDUSTRIALDEA - ELGOIBAR - GIPUZKOA - 1000 APARKALEKU BAINO GEHIAGO EDFrako

INIGO DIAZ KRIPTONITA - PATT - DIEGO GONZALEZ
CARLOS PEREZ - DARIO NUÑEZ - DAVID MEDINA - VOZ
IBAILO - JAVICO - CINTHYA NES-K - CARLOS REVUELTA
K-STYLE - JUANAN - B GUTIERREZ
DAVID MK - KHRIS RIOS

*** SPECIAL SUN ART SHOW ***
*** EGUZKIPEAN EZER EZ DA BERDIN ***
SHOW LED - MAPPING - MEGACONFETIAK

AURRE SALMENTA + KAMISETA: 18€ - LEIHATILAN SARRERAK + KAMISETA 18€
AURRE SALMENTA: ELGOIBAR: HOTEL TXARRIDUNA (MAALA PARKEA) EIBAR: OISHI (UNTZAGA PLAZA)
ERMUA: SAGARRA GASTRO PUB (PROBALEKU 4 BAJO) - RRRP EDF



Ander Izagirre

Udaberria amaitu zaigu, Inma, mendiek bizitza gehien erakusten duten urtaroa. Inguru guztiak berde-berde, animalia pila alde batetik bestera... Zoritarrez bada gustatzen ez zaidan eta ulertzen ez dudan kontu bat.

Mendi buelta bat ematera joan eta makilkada batez hilda aurkitutako sugeei buruz dihardut. Bai sugeak, horrenbeste gorroto ditugun narrasti horiek.

Jakin ez dakigun arren, sugeei diegun gehiegizko beldurra gizartearen ezjakintasun eta oinarri gabeko kondaira eta sineskera faltsuen ondorioa da. Sugeei beldur izateko gaitasun innato batekin jaiotzen omen gara, baina gaitasun hori irakatsia eta ikasia izan behar da. Hau da, umetatik behin eta berriz sugeak arriskutsuak diren ideiarekin bonbardatuko ez baligute, ez genieke horrelako alferrikako beldur eta gorroto-rik izango.

“Gipuzkoan dauden zazpi suge espezetatik bakarra da pozoitsua”

Badaramatzat urte batzuk narrastien munduan murgilduta, eta zin dagizuet errealtatea bestelakoa dela. Esaterako, Gipuzkoan dauden zazpi suge espezetatik bakarra da pozoitsua. Beraz, suge bat aurkitzea zaila bada, oraindik eta zailagoa suge pozoitsu batekin topo egitea. Gainera, eta beste behin ere jendeak aurkakoa uste duen arren, ez dezagun ahaztu, sugeek gizakiongandik ihes egiten dutela, eta beraz, sugegorri baten hozkada oso muturreko egoera batean soilik gertatu daitekeela. Zer esanik ez, gainontzeko sugeen portaera lasaiaz...

Errealtatea erakustean dago gakoa, baina zoritarrez, burugogorakeriak jota, zaila egiten zaigu umetatik erakutsi digutena gezurra dela onartzea.

Lastima diot gorroto honi, Inma.



Inma Mugertza



Bai, Ander, arrazoia duzu. Aurtengo udaberria ere muturren aurretik pasatu zaigu ia konturatu gabe. Ez da iazkoa bezain euritsua izan eta gure mendi eta txokoetaz gogoz disfrutatzeke aukera eman digu. Bestetan bezala, aurten ere animalia ugari ikusi ditut nire irteeretan: basurdea, katagorriak, orkatzak, koi-pua, sugeak... Hala ere, bada mendian aske aurten lehen aldiz ikusi dudana animalia bat Ander: huroia. Txundituta eta hunkituta joan ziztzaidan eguna...*Guau!!!*

“Aurrekoan, zirauna txiki bat makilkadaz hilda topatu nuen, eta tristura sentitu nuen”

Sugeei buruz esaten duzun guztiarekin ados nago, eta dena jaso dugun heziketarekin lotuta dago, dudarik gabe. Egia esateko, beraien itxurak ere ez die gehiegi lagutzen. Bitxia da, hala ere, kondaira zaharretan eta mitologian ez zaiela izaera txarra bakarrik leporatu. Batzuentzat onak dira, osasunarekin eta ernalketarekin lotuak. Beste batzuentzat, ordea, txarrak, heriotzari eta lur azpiko jainkotasunei lotuak.

Nola edo hala, bizidun bakoitzak zeregin bat dauka. Nahiz animalia txikia nahiz handia, nahiz polita nahiz zatarra, nahiz hegaltia nahiz narrastia. Ni ez naiz inor izaki bizidun bati bizitza kentzeko. Bai, Ander, nik ere duela pare bat aste Maltzagako bidegorrian zirauna txiki bat makilkadaz hilda topatu nuen, eta tristura sentitu nuen. Inguru horretan dozena erdi ikusiko nituen bizirik, basotik ibaira bidean. Zergatik ez bakean utzi? Erraza da gero!

Zoritarrez, sugeena icebergaren tontorra besterik ez da. Gure ergelkeriaren islada dira ere perretxiokoak ostikadaz apurtuta edo edozein mendateko bihurguneetan topa daitezkeen era guztietako zaborrak. Pentsa dezagun pixka bat!



ESKERTZA

FELIPE ATRIO DAQUINTA

2014ko ekainaren 17an hil zen, 44 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak eta babesak.
Mila esker, bihotz-bihotzez.



Familiakoak

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikei Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiXa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko!

Badira 60 urte gure gurasoek denda ireki zutela. Garai hartan, makina-erremintaren oparotasunari esker herri honetan denda txiki asko ireki ziren, eta horrelaxe sortu zen gurea ere.

Hainbeste urte zuekin egon eta gero, iritsi zaigu denda ixteko unea, eta ez dugu egin nahi lagun eta bezero izan zareten guztioi eskerrak eman gabe, urte hauetan guztietan zuen adiskidetasuna izan baitugu bidelagun gure eguneroko lanean.

Muebles Anton ☺

1964an jaiotakoen esker ona

Larunbatean, aurten 50 urte betetzen ditugunon bazkaria izan genuen.

Egun zoragarria izan zen, eta eskerrak eman nahi dizkiegu modu batera edo bestera, antolatzen eta egun hori gauzatzen lagundu ziguten guztiei: Elgoibarko Udala, Elgoibarko Parrokia (Karmelo Loiola), kartelak jartzeko baimena eman ziguten denda eta tabernak, Aintzane Larreategi, Haritz Euskal Dantzari Taldea, Ainhoa Uriguen, Aitor Zabala, BARREN, Sigma Jatetxeko Jose Ignazio, Zubi-Ondo Elkartea, eta batez ere, bertan lanean aritu ziren Juan Ignazio Ibarluzea *Kani*, Jorge De la Ara-

da *Kiri* eta Modesto Cid.

Era berean, mila esker bertan egon ziren guztiei. Guztion arteko adiskidetasunari esker lortu genuen benetan egun zoragarria izatea.

Mila esker guztioi.

1964koen batzordea ☺

Badatz San Bartolomeak!!!
Publizitatea jartzeko:
943 743 704

ILEAPAINDEGIA-EDERSINTZA
DONNA

**Azkarrago belzten duen
SOLARIUM BERRIA!**

**11 saioko bonoa: 45€
Sesio bakarra: 5€**

Pedro Muguruza etorbidea, 13 - Elgoibar - Tel.: 943 744 388

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txarangaren kalejira amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- Patatak errioxar erara
- Oilasko-izter errea osagarriekin
- Bizkotxo bustia esne-gainarekin

Izenematea **BARREN** astekarian edo
Internet bidez egin behar da
(www.elgoiBARREN.net)

Izena emateko azken eguna: uztailaren 18a.

20 €

18 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideek

TXIKI EGUNERAKO KAMISETAK SALGAI!

BARRENen bulegoan

10€
(Bazkideek 9€)



Txikixan haundi



ELGOIBARKO IZARRA
Euskoitzateko topagunea

Gaztetxearen eta gazte lokalen inguruko inkesta egingo diete Elgoibarko 400 gazteri

Gazteen beharretara egokitutako politikak martxan jarri nahi ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak gazteen aisiari buruzko diagnostia egiten dihardu 2013az geroztik. Horren baitan, ikastetxeetan aisialdiko ohituren inguruko galdeketa eta Gaztemapping egitasmoa egin zituen. Orain, diagnostia osatzeko, telefonoz galdeketa egiteko asmoa dute, gazteen iritzia jasotzeko. 16 eta 29 urte bitarteko 1.450 lagun daude erroldatuta Elgoibarraren, eta kopuru horren herenari, 400 gazteri, egingo diete galdeketa. Erantzunak modu anonimoan jasoko dituzte. Udal agintarien esanetan, 40 galderaz osatutako galdetegitik jasoko duten informazioa oso baliagarria izango da Udalarentzat, "gazteen beharretara egokitutako politikak diseinatzeke". Hortaz, galdetegi hori erantzuteko eskatu diete herriko gazteei.



EHBilduk ezinbestekotzat jotzen du Udalaren kultura politika zehaztea Aita Agirreko kulturgunea behar bezala garatu dadin

Elgoibarko kultur gunek berrantolatzeko parte-hartze prozesua jarri du martxan Udalak, eta horren barruan, Aita Agirreko kulturgunea egokitzeko asmoa azaldu du. EHBilduren ustez, elgoibartarrek behar duten kulturgunea da Aita Agirre, eta horregatik sartu omen zuten 2011ko udal hauteskundeetarako euren herri programan. "Pozik" hartu du koalizioak EAJk proposamen horrekin bat egin izana, baina Udal Gobernuak aurkeztutako proposamenak hainbat kezka sortu dizkie, eta ezinbestekotzat jo dute kultura politika zehaztea. Besteak beste, kultura alorrean dituzten lehenetasunak eta zein kultur eredu sustatu nahi duten zehazteko eskatu diete eta baita sorkuntzak izango duen lekua zehazteko ere. Baldintza horiek zehaztu gabe, kultur gunearen erabilera zehaztea ez dela posible uste du EHBilduk. Horrez gain, prozesu parte-hartzailea mugaz josita dagoela adierazi dute, bereziki, hainbat kultur eragilek ez dutelako jaso prozesuan parte hartzeko deialdia. Ideiak garbi eduki arte ezin dela lau milioi euroko inbertsio bat egin esan dute koalizioko kideek, eta prozesu honen gaineko hausnarketa egiteko eskatu dute.

Ikasle aipagarrienak saritu ditu IMH Makina-erremintaren Institutuak



Joan zen eguenean banatu zituzten IMH Sariak, Elgoibarko Makina-Erremintaren Institutuan. Denis Fernandez Bello ermua-rra aukeratu zuten aurtengo ikasle aipagarriena, eta 500 euroko ikasketa poltsa jaso zuen. Erdi mailako mekanizazio ikasketak egiten dihardu Fernandezek, eta lan-praktikak egin zituen Mecnicas Mecal enpresan bertan jarraitzen du lanean.

Ikasle izandakoen artean, berriz, Iñaki Sanchez eibartarra nabarmendu zuten. Sanchezek IMHn ikasi zuen, eta gaur egun Di-kaar enpresako kalitate zuzendaria da. Eredu dualari dagokionean, Aitzol Gonzalez Salegi elgoibartarra nabarmendu zuten. Goi mailako fabrikazio mekanikoa ikasi du, eta Tornilleria Arana enpresan egin ditu praktikak. Azkenik, Elgoibarko ikasle aipagarri- naren alorrean, Carlos Eduardo Llanos Pintori eman zioten saria, eta horri esker, enplegurako prestakuntza doan egiteko aukera izango du Llanosek.

Ekimena **Deba ibaia garbitzeko ekimena**



Deba ibaia auzolanean garbitzeko deialdia egin du beste urtebetez Debegesak, Debako Udalaren, Uraren Euskal Agentziaren eta herriko hainbat elkarteren laguntzarekin. Ekainaren 28rako egin dute deialdia. Deban elkartuko dira, Anes Arrinda pasealekuan, baina ekimen honetan parte hartu nahi dutenei aurrez izena emateko eskatu die Debegesak. Laugarren urtea da ekimen hau antolatzen dutena, eta iaz, 100 lagun inguruk parte hartu zuten. Iaz bezala, 11:00etarako jarri dute batzeko ordua, eta arropa eroso eta zapata egokiak eramateko deia egin diete herritarrei. Garbiketarako material guztia Debegesak jarriko du. Informazio gehiagorako: 943 820 110.

Asteko irudia **Etxe kaleratzea, Elgoibarren**

Gero eta familia gehiagok bizi duten egoera larriaz ohartarazteko, eta, besteak beste, finantza erakundeen "jokabide gaiztoak" salatzeke, etxe kaleratze bat antzeztu zuten jorantzen barixakuan Elgoibarren, San Frantzisko kalean. Elgoibarko Prekarietatearen kontrako Taldeak antolatu zuen ekimena, eta Taupada antzerki taldekoek parte hartu zuten antzezpenean. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net.



Kandelak egiteko tailerra bihar, hileko azken zapatuko ferian

Hileko azken zapatua da bihar, eta ohi legez, azoka egingo da Elgoibarren. Egitaraua betikoa izango da: 9:00etan zabalduko dute azoka, Kalebarren plazan, eta txosna ere jarriko dute. Hila-bete honetan Elgoibarko Mintxetako atletismo elkarteak hartuko du txosnaren ardura, eta Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin egindako mokadutxoak salduko ditu. 12:00etan kale kantariak irtengo dira kantura, eta ordu horretan bertan, argisariarekin kandelak egiten ikasteko aukera izango dute gaztetxoenek, Kalebarren plazan. Eguerditik atzera, berriz, ganadu azoka ikusteko aukera izango da Aita Agirre plazan.

Adinekoen bazkarirako izena emateko epea zabalduzear, Mendaron

Santana jaien barruan urtero egin ohi den legez, aurten ere herriko adinekoak omentzeko bazkaria egingo dute Mendaron, Aizpe gastronomia elkartearen. Uztailaren 27an izango da bazkaria, 14:00etan, eta izena emateko epea uztailaren 1ean zabalduko dute eta uztailaren 15ean itxi. Aizpen, Lagun Betikoak elkartearen, Kutxan edo Rotetan eman daiteke izena. Aizpe elkarteak antolatzen du bazkaria, Mendaroko Udalaren laguntzarekin.

Kale Kantarien entsegua, gaur arratsaldean

Elgoibarko Kale Kantariak entsegua egingo dute gaur arratsaldean, bihar kalejiran irteteko. 18:30ean batuko dira Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bihar eguerdian kalera irtengo dira, hileko azken zapatuko ferian.

BAT GEHIAGO HERRIAN

Senegaldarra da sortzez Moru Kante (Dakar, 1993), baina azaroan bi urte egingo ditu patera batean Malagara (Espainiara) iritsi eta handik Euskal Herrira etorri zenetik. Deban bizi da gaur, baina ezaguna da oso Mendarion, martitzeno etortzen baita, gurditxoa hartuta. 21 urte ditu, eta saltzaile ibiltaria da.

Ainara Argoitia

Tabernaz taberna: *Vendo barato. Goizean eta gauzez: Mucho barato. Askotan baraurik: Todo barato*. Halaxe zioen Zarama taldearen *lñaki*, ze urrun dago Kamerun kantak, eta abestiko *lñaki* haren antzera dabil joan deneko urtebete pasatxoan Moru Kante Seyé senegaldarra, batetik bestera, gurditxoari tira-ka. Zeukan guztia Dakarren laga, eta iparralde amestuaren bila abiatu zen erbestera, motxila bete ilusio, motxila bete beldur, bizkarrean hartuta. 19 urte eskas zituen, agiriak lortzeko Poliziari 25 urte zituela esan bazion ere. “Bestela ezingo nintzela inon erroldatu ohartarazi zidaten”, esan du Poliziari esan zion gezurra arrazoitzeko. Etorkizun bila irten zen, Senegalen gurasoak eta arrega gazteagoa lagata, eta beste afrikar askok bezala, pateran zeharkatu zuen Europarako itsasartea, “lagun bati ordainduta”. Gogoan du zeinen estu egin zuten bidaiaren zatirik luzeena patera hartan, mugitzeko ere apenas lekurik zutela, baina zorixarrez beste hamaika alditan gertatu izan den bezala –gertatzen ari den bezala–, nahi baino nasaiago iritsi ziren Europa amestura, bidean hamar bidaide galdu zituztelako, itsasoan itota denak. Eta halaxe, ametsa zena amesgaizto bihurtu zen Espainiako itsasertza zapaltzerako.

Wolofera du ama-hizkuntza eta frantsezsez lau berba egiteko gai da, baina Espainian ez zen inorekin komunikatzeko gauza, eta horri nora iritsi zen ere ez zekiela gehitu behar zaio. Hala ere, zorionekoa zen, beste as-



Moru Kante senegaldarra.

kok lortzen ez dutena lortua zuelako: Espainiara –Malagara– onik iristea. Ez zuen hasiera erraza izan, eta beharbada horregatik, azkar batean pasatu nahi du orria. “Banuen diru piskat eta Bilbora etorri nintzen”, dio. Autobusez egin zuen bidaia, eta behin Bilbon zela, Deban bizi zuen osabari deitu zion. Ez zeukan beste ezagunik hemen. “Zuek hemen nire modukoak ikusi eta denak senegaldarrak direla uste duzue, baina senegaldar gutxi bizi gara hemen, eta gaudenok lanik txarrenetan ari gara, itsasoan-eta. Nigeriarrak

eta ghanatarrak gehiago dira hemen. Nigerian gerran daude, eta ihesi datoz asko”, esan du horren harira.

Moru iritsi zenean, bere osabak sei urte zeramatzan gure artean, eta haren etxean bizi da geroztik, Deban. Azaroaren 23an beteko ditu bi urte etxe-etxeok azkeneko izuki zituenetik, eta badaki berriro ikusterako denbora pasatuko dela. Berak garbi dauka Euskal Herrian bota nahi dituela erroak, baina “ez hango, ez hemengo” sentitzen da orain. Lana eskatzen du, kontratupeko lana,

bere egoera legezatzeko. “Gehienez hiru urte egin ditzaket modu honetan. Lan egin nahi dut. Edozertan. Zuk eskatu lana niretzat. Jari hori lan egin nahi dudala. Edozer egingo nuke”, dio behin eta berriz.

Euskal Herrian “pozik” bizi dela dio, hala ere, baina badauka, jakina, noizbait sorterrira itzuliko den itxaropena; “hegazkinez eta bisitan”, hori bai. Orain, inbidiatan da Cadizen (Andaluzia) bizi duen anaia –hiru neba-arrebetan zaharrena– abuztuan hiru hilabeterako itzuliko delako gurasoenera, bost urte erbeste egin ostean. “Eutsi egin behar; iritsiko zait eguna”. Bitartean saiatzen da domekero gurasoekin eta arrebarekin telefonoz hitz egiten. “Denak ondo daudela esaten didate, eta lasai nago”, dio.

Sortzez, ‘kapitalekoa’

Dakar hiriburutik gertuko herriska batekoa da berez Moru, baina aspertua dago nonbait azalpenak emateaz eta Dakarrekoa, *kapitalekoa*, dela dio irribarretsu. Eskolatu gabea da, baina alfabetatua. “Badakit irakurtzen eta idazten”, nabarmendu du, eta papeira hartu eta bere izen-abizenak eta beste hainbat datu idatzi dizkio kazetariari paperezko aho-zapian. “Corana ikasi dut, eta lehen, egunero irakurtzen nuen”, zehaztu du. Musulmana da erlijioz Moru, eta Mekara begira jarri eta egunero sei aldiz otoi ez egiten du, goizaldeko seiretan hasi eta gaueko hamarrek bitartean. Eta ez dauka esan gabe uzteko. Errezurako erabili ohi duen alfonbratxoa atera du gurditxotik. “Hor jarri eta Mekara begira jartzen naiz”, dio. “Eta nola dakizu non dagoen Meka?”, galdetu dio kazetariari. Duda egin du. “Ez dakit. Han?”, bota du euskaraz, Debara begiraruta. “Ostiralero mezkitarra joaten naiz eta Alak laguntzen dit. Gizon langilea naiz. Euskal herritarrek bezala, senegaldarrak ere oso langileak gara. Egunez ikasi eta lan egiten dut, eta gauez, lo. Jaietan, txapelak eta eratzun argidunak saltzera irteten naiz hori bai. Jendeak gehiago erosten du gauez, baina krisia dagoela esaten didate denek, eta merkeago nahi izaten dute dena. Nik oso merke daukat, baina, dena. Emakumeak erosle hobeak dira gizonak baino”, dio.

Aste osoa antolatuta dauka. Mendarora martitzen goizero etortzen da, eta gero, autobusa hartu eta Aretxabaletara joaten da. Herri herri dabil goiz eta arratsalde: Deba, Mendaro, Aretxabaleta, Arrasate, Azpeitia,



Azkoitia, Oñati, Zarautz, Pasaia... “Hemen inguruko herri guztiak ezagutzen ditut”, bota du. Izendatuta ditu itxuraz herriak, baina ez du berbarik egin nahi gaur bere lanbide duenaz. Ugazaba nor duen galderari ere ez dio erantzuten. Ezta jeneroa nondik dakarren galderari ere. Burua jirutzen du, eta aldameneko mahaira balizko bezero bat etorri zaiola baliatuta, jaikitzeo imintzioa ere egin du. ‘Beste batean hitz egingo dugu gehiago’ esan eta zorro beltz handi bat zabaldu du aldamenekoari erloju “merke-merkeak” eskaintzeko.

Lagun ugari inguruan

Ezagunak ditu taberna bueltan dabilzan guztiak, eta bistan da asteroko lagunak dituela haietako asko, haien izenak ere errenkadan esateko gai da-eta. “Mendaron eta Deban lagun asko ditut. Alberto, Juli, Juanita, Mariasun, Begoña, Jabi, Txomin, Beñat, Oihan, Jon... eta orain zu ere bai, Ainara. Ez duzu oportretan Senegalera joan nahi? Hondartza politak daude han; mendiak ere bai, baina ez hemengoak bezalakoak. Bizitza gogorra da han, baina turista asko joaten dira, ingurua polita delako”.

Hemen ondo zaintzen dutela dio. la astero gosari-legea mendaroarren kontura egiten duela aitortu du, eta esker on berbak baino ez ditu haietzat. “Bihotz handia dute”, dio. Hala ere, saltzera dator bera, eta egun guztiak onak direla ezin esan daiteke-

la nabarmendu du. “Etxea ordaindu behar dut, eta jateko ere behar du zerbait”. Bereztat baino gehiago lortzen duenean, etxeko ei bidaltzen die dirua. “Nire familia da-eta”, arazoitu du, arazoitu beharrik izan ez arren.

Erdararik euskarara saltoka doa elkarriketa. Biak ikasten ari da. “Astelehen, asteazken eta ostiraletan joaten naiz ikastera. Jon da nire irakaslea. Mutil ona da”. Saltzeko ezinbestekoa duela dio, eta lagunekin aritzeko ere bai. 21 urte ditu, parrandarako sasoi ona, baina ez da zalea. “Ez, ez. Nik lan, eta gero deskantsatu”. Lagun ugari ditu, neskak ere bai. “Igual mila, baina neska-lagunik ez”, zehaztu du. Eta inguruan dituen lagunekin argazkia egiteko eskatu dio kazetariari. Ez du lehengo aldia. Presa du, hala ere, eta ez dauka gehiagotarako astirik. Autobusa iristear da, eta jaiki da aguro. “Nola egiten duzu gurditxo horretan behar duzuna topatzeko?”, galdetu dio emakume batek. Eta berak erantzun: “Zer nahi duzu? Zapi, eratzuna... Denetarik daukat. Azpiko aldean, neguko jeneroa, eta goian, eskura, udakoa”. Badoa irribarre eginez, baina joan aurretik argazkiak eta BARRENA gordetzeko eskatu du. “Anaiak aitari eramateko nahi ditut”. Abuztuan, Senegalera bidaiatu egingo du BARRENEAN ale batek, eta Moruk lan bila jarraituko du hemen, diru pixkat egin eta ahal duenean sorterrira bisitan itzultzeko.

Erretratu zaharra



1961

Aste honetako erretratu zaharra Lucia Arrietak laga digu. 1961ean ateratakoda, familia-irteera batean. Sarritan egiten zituzten mendi irteerak familian, eta erretratu hau irteera horietako batean egin zuten. **Goian, ezkerretik eskumara:** Jose Antonio Arrieta eta Kontxi Zuazubizkar. **Erdian:** Lucia Arrieta, Abelino Arrieta (†) eta besoetan Myriam Iriondo. **Behan:** Karmen Iriondo eta Elena Zuazubizkar.

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



**INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!
IKASTARO TRINKOAK!**



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO
IKASTARO TRINKOAK**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gazteleraazko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela

‘Eguzkipean ezer ez da berdin’

Hamabi orduko musika elektronikoari buruzko jaia antolatu dute uztailearen 5erako, Albitxuriko industrigunean

Hamabi orduko musika elektronikoari buruzko jaialdia antolatu dute uztailearen 5erako Kida Events elkarteko David MK eta Khris Riosek, Txarridunaren laguntzaz. 15:00etan hasi eta goizaldeko hirurak aldera arte, beraz, musika elektronikoak hartuko du Albitxuriko industrigunea. Egun argiz hasi, eta gaueko iluntasunean amaituko da jaia, eta kontraste horretan oinarrituko dute jaialdiaren xarma. Eguzkia izango da gai nagusia, eta *eguzkipean ezer ez da berdin* lema erabiliko dute jaialdirako. Belgikako *Tomorrowland* jaialdira begira jarri dira, eta haren estiloan antolatuko dute eszenatokia. Sorpresak egongo direla aurreratu dute antolatzaileek, eta herritar guztiei egin diete Albitxurira joateko deia.

Kartela “bikaina eta bakarra”

Lan handia egin dute David MK eta Khris Riosek jaialdi hau antolatzeko. Orain dela zazpi urte hasi ziren musika elektronikoari buruzko jaialdia antolatzeko lanetan, baina finantzazio arazoak medio, ezin izan dute orain arte antolatu. Txarriduna izango da jaialdiko babeslea, eta argi eta garbi esan dute bi gazteek horri esker izan dela posible hau guztia. Kartela “bikaina eta bakarra” izango dela aurreratu dute. Euskal Herriko antzoki ezagunetan pintxatzen duten DJak etorriko dira Elgoibarrera, Espainia iparraldeko “onenak”. Asko gainera, Elgoibarren ezagunak dira, izan ere, Guass dantzalekuan eman zituzten-eta lehen urratsak. Iñigo Diaz Kriptonita, Patt eta Carlos Gonzalez ezagunak egingo zaizkie elgoibartar askori, eta horiekin batera, Juanan, B. Gutierrez, David MK eta Khris Rios elgoibartarrek ere parte hartuko dute jaialdian, beste hainbat DJrekin batera.

Albitxurira igotzeko autobusak

Hasiera batean, jaialdia Guass dantzalekuko aparkalekuan egitea bururatu zitzairen, baina berehala baztertu zuten ideia hori. Halakoetan batzen den jende kopururagatik, herriko erdigunean zarata eta oztopo gehiegi sortzeko arriskua ikusi zuten, eta Albitxuri leku askoz hobea iruditu zitzairen antolatzaileriei. “Herritik gertu dago, baina aldi berean, aparte”. Autoak aparkatzeko mila leku inguru egongo dira, eta nahi duenak autobus zerbitzua ere izango du Albitxurira igotzeko. Elgoibartarren erantzuna nolakoa izango den asmatzea zaila dela adierazi dute. Orain arte areto itxietan egin izan dituzte festak, eta jendeak ondo erantzun izan duela esan dute, baina Elgoibarren jendea animatzea gehiago kostatzen zaiela aitortu dute. Hala ere, sanbartolomeetan antolatu izan duten DJ Gauak harrera “oso ona” izaten zuen, eta hori ikusita, dena “ondo” irritea espero dute. Eta ondo irteten bada, datorren urtean errepikatu egingo dute, eta ahal bada, festa handiagoa prestatuko dutela agindu dute.



David MK eta Khris Rios Elgoibar Dance Festival jaialdiko kartelarekin.

Sarrerak, salgai

Sarrerak salgai daude dagoeneko, 15 euroan. Txarridunan, Eibarko Oishi tabernan edo Ermuko Sagarran eros daitezke, eta Internetez edf.ticketbox.es helbidean. Egunean bertan ere erosi ahal izango dira, 18 euroan. Sarrera erosten dutenei kamiseta bana oparituko diete.

STEVE WILLIAMS

THE FUGITIVES TALDE GALESTARREKO PARTAIDEA



The Fugitives talde galestarrak kontzertua eskainiko du gaur zortzi, uztailaren 4an, Elgoibarren. Sinuosen kultur elkarteak antolatu du, eta ohi legez, Kultur Etxeko sotoan izango da kontzertua, 23:00etatik aurrera. Blues & rocka musika egiten du talde honek, eta Elgoibarren jo biharamunean Hernanin ere joko du. Steve Williams, taldeko gitarra jotzailea eta abeslaria, ekarri dugu orrialde hauetara.

Dani Zelaia Cooper

Nortzuk osatzen duzue The Fugitives eta zein musika estilo jorratzen duzue?

The Fugitives taldea ondoko partaideok osatzen dugu: Gary Shag baterian, Jason baxuan, Steve Coleslaw gitarra eta ahotsetan eta ni gitarra eta ahotsetan. Lehen kontzertua 2000. urteko urrian eskaini genuen, eta ordutik taldekideak aldatzen joan dira, baina Jasonek, Shagek eta nik eutsi egin diogu. Euskal Herrian izango garen taldekideok zazpi urte daramatzagu elkarrekin. The Fugitives izena gure estraineko kontzerturako di-da pentsatu genuen izena izan zen. Hiru milioi bat talde izango dira munduan izen horrekin! Ez da batere izen ona. Taldeak blues, rock, rock&roll, country eta folk estiloetatik edaten du. Oinarrian rhythm & blues talde bat gara.

Taldeak lotura berezia du Euskal Herriarekin. Nondik dator harreman hori?

Euskal Herriarekin dudan lotura ni jaio aurrekoa da, 1957an Michel Celaya errugbi jokalaria euskaldunak eta Rhys Williams Elgar errugbilari galestarrak Miarrizteko Olympiqueko zelaian elkar topo egin zuteneko. Oso pozik nago elkar ezagutu zirelako. Bi kirolariak lagun handiak egin ziren

“Euskal Herrian etxean bezala sentitzen naiz”

eta elkarren aurka askotan jokatu zuten, batak, Frantziako selekzioarekin, eta besteak, galestarrarekin. Michel Celaya gaur egun Elgoibarren bizi den Dani Zelaiaren aita da, eta Rhys Williams Elgar, berriz, nirea. Urteekin bi familien arteko harremana oso estua bihurtu da. Harro nago Euskal Herriarekin lotura berezi hau izateko aukera dudalako. Euskal Herrian beste familia bat dut: hiru arreba: Tami, Maite eta Dani; eta anaia bat: Mike. Zoragarria da horrelako lotura berezia izatea beraiekin. Eta hori guztia haien gurasoei esker izan da, Michel handiari esker, eta Lynneri esker. Eskaini zidan maitasun guztiagatik, ontasunagatik, eta nigan eragin zuen influentzia eta inspirazioagatik aparteko pertsona izan zen Lynne niretzat. A ze nolako legatua utzi zuen Lynne! Oso garrantzitsua izan zen niretzat, eta ikaragarri sentitzen dut haren falta.

Zer nabarmenduko zenuke Euskal Herriaz eta euskaldunotaz? Ba al duzu bertako musikaren edota musikarien berri?

Euskal Herrian etxean bezala sentitzen naiz, beti esku zabalik jaso nauen herria

“Jon & Sugramas taldearen musika entzun dut, eta zoragarria iruditu zait”

delako. Nire euskal talderik gustukoena Tami, Maite eta Dani Celaya anai-arrebak dira *Me and Bobby Mcgee* kantua abesten. Dani eta Hodei Elgoibarren bizi dira, eta askotan etorri naiz bisitatzerara. Haien familia eta lagunak ezagutzeko pribilegioa izan dut eta musika ona entzun dut herri honetan. Jon Gurrutxaga aipatu beharra daukat, Jon & Sugramas bere taldearen musika entzun dut, eta zoragarria iruditu zait. Musikari paregabea da, eta sekulako ahotsa dauka. Euskal Herrira joan izan

naizenean bera ezagutzeko aukera izan dut, eta pertsona paregabea da, euskalduna eta sekulako rockeroa. Galesera ekartzeko aukera izatea espero dugu.

Elgoibarkoaz gain, beste emanaldi bat ere baduzue Euskal Herrian, Hernanin, hain zuzen ere.

Hernani errugbi taldea Cardiffen izan zen joan zen martxoan. Bidaia nire lagun Xan Harriaguek antolatu zuen. The Fugitive-
sek uztailean Elgoibarren joko zuela aipatu nion eta berak Hernanin beste emanaldi bat antolatzea erabaki zuen. Duela hamar urtez geroztik ezagutzen dut Xan.

Galeseko C major 4Life izeneko elkartearen alde emanaldiak ere eskaintzen dituzue. Zertan datza proiektuak?

Kontzertu asko eskaintzen ditugu Galesen, beraz, minbizia sendatzeko ikerketak bultzatzen dituen elkarte horri laguntzea ere erabaki genuen. Bertan Gales hegoaldeko musikari askok hartzen dute parte eta jaialdiak eta kontzertuak antolatzen dituzte denok batera minbiziari aurre egiteko.



San Joan suaren babesean

Laino beltzak mehatxuka izan arren, ateri eutsi zion azke-
nean eguraldiak, eta San Joan bezperako ospakizunak
arazorik gabe egin ahal izan ziren. Udako solstizioa da
mendeetan zehar San Joan egun bezperan ospatu dena, eta
ohiturak agindu bezala, Mendaron eta Elgoibarren ere piztu
zizuten astelehenean suak. Apunte, traste zahar eta kontu txar
ugari erre zituzten sutan herritarrek, urteko gaurik motzenean.
Bideoa eta argazkiak: www.elgoIBARREN.net



Uztailaren 4an hasiko da aire libreko zinemaldia

Hamar film eskainiko dituzte guztira

Uda iristearekin batera, zinea kalera aterako dute aurten ere. Udaleko Kultura Sailak antolatuta, gaur zortzi hasiko da aire libreko zine emanaldia, eta ziklo horren barruan, hamar film eskainiko dituzte kalegoen plazan. Pelikula guztiak 22:30ean hasiko dira.

UZTAILAK 4, BARIKAKUA
Gravity

UZTAILAK 5, ZAPATUA
Gru 2

UZTAILAK 11, BARIKAKUA
Oblivion

UZTAILAK 12, ZAPATUA
Frozen

UZTAILAK 18, BARIKAKUA
Las brujas de Zugarramurdi

UZTAILAK 19, ZAPATUA
El llanero solitario

UZTAILAK 25, BARIKAKUA
La gran familia española

UZTAILAK 26, ZAPATUA
3 bodas de más

UZTAILAK 27, DOMEKA
Futbolín

UZTAILAK 30, ASTEAZKENA
Guadalquivir



'La memoria de los peces' filma aztertuko dute gaur, zine-forumean



Haizea emakume taldeak zine-forum saioa antolatu du gaur gaue-rako. Gaur, *La memoria de los peces* filma landuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. 2003. urteko film irlandar honetan bikote harreman perfektuaren bila dabilzan bi gazte dira protagonistak. Batzuk ezkondu egiten dira, eta besteak banatu, baina guztiek argi daukate maitasunik gabe ezin dutela bizi. Eguneroko bizimoduan aurkitzen ditugun gaiak agertuko dira filmean, drama eta komedia ukitu batekin.

21:30ean kafea hartuko dute, eta 22:30ean hasiko da zine-forum saioa, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.




FELIPE ATRIO DAQUINTA

Betiko izango zaitugu gogoan.

Spool-eko lankideak

2014ko ekainaren 17an hil zen,
44 urte zituela.



Gaur hasi eta domeka bitartean San Pedro jaiak ospatuko dituzte Idotorben

Euskadiko Enduro txapelketa jokatu da bihar



Gaur iluntzean hasiko dituzte jaiak Idotorben, hango elkartean egingo duten lagunarteko afariarekin [Izena emateko: 618 554 356]. Gauean, 23:00etan, mus txapelketa ere egingo dute. Bihar, larunbata, berriz, Enduro motor txapelketarekin hasiko dute eguna. Euskadiko txapelketako proba izango da, eta 17:00etan hasiko da lasterketa, nahiz aurrez ere egongo den Idotorben motor usainik. 19:00etan banatuko dituzte motor txapelketako sariak, eta bitartean, 17:00etan, bolo txapelketa jokatu dute bolatokian. Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak girotuko dute arratsalde partea, eta 21:00etan lagunarteko afaria egingo dute, San Pedro jatetxean. Ondoren, erromeria izango dute, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak eta goizaldera arte irauten dutenei txokolate beroa banatuko diete antolatzaileek.

Domekan izango da egun handia. Ohi legez, meza izango da eguneko lehen ekitaldia, eta meza osterako pilota partida antolatu du Lagunak elkarteak. Ondoren, 14:00etan, auzotarren eta jubilatuen bazkaria egingo dute tabernan, eta ordu bererako, paella jana antolatu dute Idotorbeko Jai Batzordekoek, karpan. Arratsaldean umeentzako jolasek, bolo-txapelketak eta idi-demek hartuko dute. Idi-demetan, Javier Arrillaga *Altubarren* eibartarraren, Iñaki Oliden oriotarraren eta Roman Elozegi zarautzarraren idiak lehiatuko dira. Egun osoan zehar, Baltzola anaiak arituko dira trikitiarekin giroa berotzen.

Losintxa lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Santanen atariko moduan, losintxa edo *piropo* lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak. Nahi duen orok parte hartu dezake, eta hiru dira losintzek bete beharreko baldintzak: euskara hutsean izatea, originalak izatea eta sexistak ez izatea. Losintzak liburutegian eta herriko tabernetan jarriko dituzten kaxetan laga beharko dira, uztailaren 13a baino lehen. Sari bakarria egongo da, 50 eurokoa.

Koadrilen egunerako bazkarirako izenematea zabaldu dute, Mendaron

Uztailaren 19an ospatuko dute Mendaron santanetako Koadrilen Eguna, eta egun horretan, ohi legez, herri bazkaria egingo dute frontoian. 13:00etan paella lehiaketa egingo dute, eta 14:30ean izango da bazkaria. Bazkaritarako, baina, izena eman beharko da. Menditxon, Uztargin eta Aitz Beltzen daude salgai txartelak, 5 eurotan. Izena emateko azken eguna uztailaren 13a izango da.

243 umek eta 35 begiralek osatu dute Atxutxiamaikaren udako familia



Jolasean eta kantuan hasi dute uda sasoiak Atxutxiamaikaren txokoetarako izena eman duten haur eta begiraleek. Aurten, 2 eta 8 urte arteko 243 umek eman dute izena udako txokoetarako, eta 35 begirale arituko dira talde handi hori zuzentzen. Astelehenean batu ziren estreinakoz lehenengo txandakoak, eta orduan egindako talde argazkia duzue hau. Bigarren txanda hilaren 14tik 24ra egingo dute, eta astelehenean barixakura lau orduz ibiliko dira jolasean eta kantuan, 9:00etatik 13:00etara.

Sanbartolomeetako Gazteen Eguna antolatzeko bigarren batzar bat antolatu du Gazte Asanbladak domekarako

11 koadrilako ordezkariak batu ziren joan zen astean estreinako batzarrean

Urtero bezala batzarrak antolatu ditu Gazte Asanbladak, sanbartolomeetan egitarau ofizialetik kanpo egiten den Gazteen Eguna antolatzeko. Joan zen domekan egin zuten estreinako batzarra eta 11 koadrilatako ordezkariak batu ziren han. Aurreko urteetan estimazioa izan duten ekintzei eutsiko diete, hala nola, koadrilen arteko sukaldaritza lehiaketari, herri-bazkariari, erreka jai-sierari eta arratsaldeko jolas-kalejirari, baina ideia berriei aberas-tu nahi dute orain egitarau hori. Horretarako, eta lanak eta ardurak koadrilen artean banatzeko, beste batzar bat antolatu dute datorren domekarako. 19:00etarako jarri dute batzarra, Gaztetxean.



Figuranteak behar dituzte 1936ko Gerrari buruzko filmazio lan baterako

1936ko Gerran, Aiestia inguruan izan zen borrokaldiari buruzko dokumentala lan bat prestatzen dihardu Baleuko produktorak, eta figuranteak behar ditu. Azpeitia eta Elgoibar inguruko 18 eta 26 urte bitarteko gizonetako argalak behar dituzte. Filmazio lanak uztailaren 7tik 11ra bitartean egingo dituzte Elgoibar eta Azpeitia artean, eta telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat jarri ditu Baleukok interesatuek izena eman dezaten: 943 323260 / casting@binahi.com. Norbere datuak eta argazkiren bat bidaltzeaz gain, uztailaren 4tik 11ra bitartean libre dituzten egunak zeintzuk diren zehazteko eskatu diete interesatuei.

San Bartolome jaietarako programaren azala lehiaketa bidez aukeratuko du aurten ere Udalak

San Bartolome jaietarako programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du aurten ere Elgoibarko Udalak. 18 urtez gorako edozeinek parte hartu dezake, baina egile ba-koitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez, aurrez beste inon argitaratu gabeak. Teknika librean egin ahal izango dira lanak, baina A4 edo tamaina proportzionalean aurkeztu beharko dira, euskarri gogorrean. Irudian, honako testu hau agertu beharko da der-ri-ri: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2014*. Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, uztailaren 4a (13:00) baino lehen, eta aurkeztutako lan guztiak Udalaren jabetzan geldituko dira. Irabazlea 700 euroekin sarituko dute.

Haurren kartel lehiaketa

Lehiaketa honetan 18 urtez azpiko elgoibartarrek parte har dezakete eta uztailaren 4rako aurkeztu beharko dira lanak. Hemen ere teknika librean erabili ahal izango dute, bai-na ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakorik ere. *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2014an* testuak agertu beharko du lane-an. Sei onenak sarituko ditu Udalak, opariekin.

'Machomaris' antzezlanaren Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan, gaur

Gay, lesbiana eta transexualen harrotasun eguna da ekainaren 28a, eta horren harira, Markus eta Juan-manoloren *Machomaris* antzezlanaren ikusteko aukera izango da gaur Elgoibarren, Kultur Etxeko sotoan (19:30). Ermuko Zipristintzen Gizon Taldeak sortutako obra da, 50 minutu inguru-ko umorezko saioa. Kode matxistak hautsi nahi dituzten gizonetako zuzendutako antzezlanaren berez, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde lan egiteko prest dauden guztiei zuzendutakoa.

Imanol Garaizabalek bigarren egin du Korsikako raidean, bost lagunek osatutako taldearekin

432 kilometro egin dituzte bost egunean

Raid probetako Euskal Liga irabazi zuen iaz Imanol Garaizabal elgoibartarrak, Aaron Garmendia bikotekidearekin, eta denboraldia amaitu bezain laster jakinarazi zuten Korsikako raidean parte hartzeko asmoa zutela. Esan eta egin. Bost laguneko taldea osatu zuten Korsikako probarako. Lau lagunek egin zituzten kirol probak, tartean Imanolek, eta bosgarrenak laguntzaile lanak bete ditu. Guztien ahaleginari esker, sailkapen nagusiko bigarren lekuan amaitu zuten. Korsikakoa Europako ligako bost eguneko proba da, eta hainbat herrialdetako kideek hartzen dute parte: Korsika, AEB, Sardinia, Errusia, Belgika, Herbehereak, Frantzia... Eta Euskal Herriatik joandako talde bakarra Imanol Garaizabal eta bere lagunek osatutakoa izan zen. Raidak kirol modalitate desberdinak batzen ditu, eta orientatzen jakitea ere ezinbestekoa da horrelako probetan. Kasu honetan, 222 km egin zituzten bizikletan, 143 oinez eta beste 65 kayakean. 61 ordu inguru behar izan zuten lasterketa amaitzeko, eta guztira, 15.000 bat metroko desnibel positibo gaingitu behar izan zuten. Imanolen eta bere taldekideen hasierako helburua proba amaitzea zen, baina lasterketa hasi eta pixkanaka euren lekua hartzen



joan ziren, eta ia amaierara arte irabazleekin lehia ibili ziren.

Hemendik aurrera, Euskal Herrian jokutzen den Columbia Raid Series zirkuituko lasterketetan parte hartzen jarraituko dute, eta, udan, Ondarroan lehenengoz egingo den raidean ere izango dira. Europako Mendietara ere joan nahi dute, 24 orduko proba bat egitera.

180 lagun ari dira kirol campusean parte hartzen



Kirol Patronatutak antolatuta, astelehenean hasi zen aurtengo kirol campusa, eta aurten, 180 ume eta gazte ari dira parte hartzen. Astelehenetik barixakura, Mintxetan, Olaizagan edota Ikastolan kirol jarduera desberdinak egingo dituzte, zazpi monitoreren gidaritzapean. Uztailaren 18an amaituko da campusa.

Sanloren denboraldi amaierako festa, bihar

Sanlo eskubaloi klubak denboraldi amaierako festa ospatuko du bihar. Hileko azken zapatuko ferian Mintxeta atletismo taldekoek jarriko duten txosnan batuko dira 13:00etan, eta elkar-tzen diren guztiei zapiak banatuko dizkiete. 13:30ean triki-pote-oa egingo dute, eta 14:30ean batuko dira bazkaltzeko, Sigma-ko aparkaleku estalian.

Futbolin txapelketa, uztailaren 5ean

Iratxo tabernak futbolin txapelketa antolatu du uztailaren 5erako. Irabazleak 300 euro irabaziko ditu, bigarren sailkatuak 100 euro, eta hirugarrenak, 50 euro. Izena emateko 10 euro ordaindu beharko ditu partaide bakoitzak, eta partaide guztien artean, 50 euro zozketatuko dituzte. 18:00etan hasiko da txapelketa.


80 bat motozalek hartuko dute parte Idotorben, Euskadiko moto txapelketan

Bihar izango da proba, 17:00etatik aurrera

Euskadiko enduro moto txapelketa antolatuta dute biharko, Idotorbenko jaien barruan. Euskal Herriko eta Espainiako 80 bat motorzalek hartuko dute parte, eta horrez gain, trial-sin erakustaldia ere egingo du mutiko batek. Proba hau Euskadiko txapelketarako puntuagarria izango da. 14:00etan egingo dituzte berifikazioak frontoian, eta 16:00etan entrenamendu saioa egingo dute. Lasterketa 17:00etan hasiko da.



Gaur jokatu dute Nahaste Borraste, 19:00etatik aurrera



Kimetz elkarteak antolatuta, gaur jokatu dute Nahaste Borraste herri proba, Elgoibarren. 19:00etan irteno dira partaideak Kalegoen plazatik, eta lehenengo zazpi bat kilometroko ibilbidea egin beharko dute bizikletan. Ondoren, 25 kiloko zakua lepoan hartuta, 400 metro egin beharko dituzte, San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena, eta azkenik, 1.500 metro egin beharko dituzte korrika. Interesatuek 18:30etan eman beharko dute izena, Kimetz elkartearen.

Piriniotara irteera antolatu du Morkaikok

Morkaiko mendizale elkarteak Piriniotara irteera antolatu du uztaileko. Uztailearen 19ko asteburuan izango da irteera, eta Izas eta Roya kanalak batu dituen mendi-ibilaldi zirkularra egingo dute. Zapatuan, Formigal ingurutik irteno dira, eta, Izas kanala zeharkatuz, Candanchun dagoen Pepe Garces aterpean amaituko dute ibilaldia. Domekan, berriz, Pepe Garces aterpetetik irten, eta, Roya kanalean zehar, Formigalera bueltatuko dira. Morkaikoko bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 60 euro. Izena emateko azken eguna uztailearen 14a da. Informazio gehiagorako: morkaiko@morkaiko.net edo 943 740 297.

Jesus Mari Untzilla, CD Elgoibarko presidente

CD Elgoibarrek presidente berria izango du datorren denboraldian, izan ere, Jesus Mari Untzillak hartuko du eta Edu Arrietaren lekua. Untzilla zuzendaritzako kidea izan da azken urte hauetan, eta diruzain kargua bete izan du. Hogeitabat urte daramatza CD Elgoibarren bueltan, eta aurrez ere egon izan da zuzendaritzan.



Asier Lizarralde bi pilota txapelketa irabazi ditu

Joan zen asteburuan bi txapelketako finalak jokatu zituen Lagunak taldeko Asier Lizarralde pilotariak, eta biak irabazi zituen. Barixakuan 4 t'erdiko finala jokatu zuen Legazpin, eta 22-16 irabazi zion Jon Agirreri. Zapatuan, berriz, San Joan txapelketa jokatu zuen Eibarren, bikotekako kategorian. Perez izan zuen bikotekide, eta 22-18 irabazi zieten Zubizarreta eta Agirresaroberi.



Sanloko lau jokalariek euskal selekziora deitu dituzte

Sanloko infantiletako lau jokalariek deitu dituzte Euskadiko Selektzioa, eta uztailearen 9tik 13ra Cangas de Narcean (Asturias) jokatu den txapelketan hartuko dute parte: Ane Kortaberria, Nerea Lizarraga, Iñigo Elustondo eta Jon Ortega dira hautatuak.

LAN ESKAINTZAK

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile izateko, nagusiak zaintzeko edo lanak egiteko prest. ☎ 633 116 570
- Elgoibarko emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxe-ko lanak egiteko. ☎ 609 792 835
- Gizonezkoa eskaintzen da baserriko lanetarako. Mahatsa batzen eta kontserba lanetan esperientzia. ☎ 677 866 495 / 602 473 663
- Emakumea eskaintzen da sukalde laguntzaile edo garbitzaile lanetarako, tabernan edo hotelean lan egiteko, etxe-ko lanetarako edo adinekoak zaintzeko. ☎ 678 292 120 / 602 473 663
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Orduka. Banaketa lanak egiten esperientzia daukat. ☎ 688 801 061 / 600 202 516
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 603 237 932
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxe-ko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ 646 931 162
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. Gauzez. Autoa eta gidabaimena ditu. ☎ 600 005 160
- Neska gaztea eskaintzen da umeak zaintzeko. ☎ 636 779 634

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, erropak plantatzeko edo adinekoak zaintzeko. Egunez. ☎ 648 063 061
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ 626 052 165
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ 632 126 668
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen eta garbiketarako egiten esperientzia handia. ☎ 602 828 601
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna. ☎ 684 216 396
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko. Orduka. ☎ 676 730 622
- Emakumea eskaintzen da, adinekoak zaintzeko. ☎ 648 111 540
- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko, baserriak edota elkarrekin garbitzeko... ☎ 686 077 316
- Emakumea lanerako prest: sukaldari laguntzaile edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 606 354 982
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai. ☎ 660 551 781 / 943 742 330
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Garbiketarako lanak egiteko ere prest. ☎ 631 832 767 (Eva Ramirez)

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxe-ko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 610 658 914
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ 632 126 668

ESKAINTZA

- Sukaldari laguntzailea behar da aste-buruetarako. CVA Gautxo tabernan utzi behar da.

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 622 037 598
- Pisua hartuko nuke alokairuan, ahal dela, hiru logelatakoa. Jabearekin harreman zuzena izatea eskertuko nuke. ☎ 671 289 584
- Pisua alokatzen dut Donostian, Gros auzoan. Ikasleentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten garaian. 3 logelakoa. ☎ 639 775 253 (Juan Andres)
- Emakume batek etxea hartuko luke alokairuan, ahal bada hiru logelatakoa. ☎ 603 237 932

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Lekuederren. 3. solairuan. Jausoron garajea salgai edo alokairuan. ☎ 652 727 631

LOKALAK

- Lokal komertziala alokatzen dut. Biltegi edo gazteentzako lokal moduan erabiltzeko egokia. Bi lokal batuta, 120m2 eta bi komun. ☎ 649 446 716 (Loli)

PARTIKULARRAK

- Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 680 319 002
- Uztaileko goizetan klase partikularrak emango nituzke, Mendaron. ☎ 666 614 519 / 943 030 277 (Oihana)

BESTELAKOAK

- Katakumeak oparitzen ditut. Egoera onean eta ondo elikatuta. ☎ 667 625 705



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Duela urte batzuk ahobatez onartu genituen estatutuak gure komunitatean. Gero, erregistro-raman genituen, erregistratzera. Duela urtebete, baina, etxebizitza bat saldu zuten gurean, eta jabe berria ez dago ados bere garaian guk onartu genituen estatutuarekin eta aldaketa batzuk egitea proposatu du. Gainera, azkeneko batzarrean esan du ez dituela beteko. Egoera horren aurrean, bizilagun batzuek esan dute ez dutela inolaz ere onartuko estatutuarekin aldaketak egitea.

Beste batzuek, aldiz, beharrezko ikusten dute. Azkenik bi etxe-jabe abstenitu egin dira bozketan. Nola zuzendu dezakegu egoera hau?

Estatutuak behar beste aldatu daitezke, etxe-jabeen batzarrak hala erabakiz gero. Horretarako, gai-ordenan sartu beharko da gaia, eta batzarra aurretik eman beharko zaie etxe-jabe guztiei estatutuak aldatzeko proposamenaren eta egin nahi diren aldaketen berri, batzarrean eztabaidatu eta erabaki bat hartzeko aukera izan dezaten. Estatutuak onartzeko zein aldatzeko etxe-jabe guztiek onartu behar dute, ahobatez. Hala ezartzen du legeak. Behin Batzarrak estatutuak onartuta, Jabetza-erregistroan erregistratu beharko dira, bizilagun guztiak horiek betetzera derrigortu ahal izateko. Batzarrean parte hartu duten bizilagunak nahiz gero komunitate horretara gehitu daitezkeen bizilagun berriak egongo dira horretara lotuta.

GOMENDIOA: Komunitate baten egunerokoari lotutako gai batzuk komunitate horretan adosten diren arauen arabera ere arautu daitezke.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Gorane**, atzo 8 urte bete zenituelako! Muxu handi handi bat, familiakoen, eta bereziki, Ikerren partez.

• Zorionak, **Maddi**, atzo 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **bikote!** Bihar egun mundiala pasa dezazuela. Familiako guztiok asko maite zaituztegu.

OSPAKIZUNAK



Joan zen larunbatean aurten 50 urte betetzen dugunon topaketa izan genuen Elgoibarren. 133 lagun bildu ginen, eta bikain pasatu genuen, giro oso alaietan.



Uztailaren 7tik aurrera,
15 urtetik gorakoentzako
eskaintza berezia:
ikastaroa eta olinpiar jokoak.
Informazio gehiago, gaztelekuan

Uztailaren 1ean Mintxetako
igerilekuetara irteera.
Izenemateak ludotekan,
emailaz edo bezpera aurretik
656 740 793 telefonora deituta.



Makina erremintan dihardun DOIMAK S.A.
enpresa elgoibartarrak honako lan postuak
betetzeko deialdia egin du:

Doimak

● LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUEN HIRU MUNTATZAILE.
(INGELESEKO ETA EUSKARAZKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)

Interesdunak bidali zuen kurrikulumak adminis@doimak.es helbide elektronikora
edo 943 740 988 (Tomas) telefonora deitu

27 barixakua

Ikasturte amaiera
19:00 BH Institutuko diploma banaketa
 Herriko Antzokian.

Kirola
19:00 Nahaste Borraste
 Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan hasiko da proba.

Antzerkia
19:00 'Machomaris'
 Gay Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Berdintasun Sailak antolatuta. Kultur Etxeko sotoan.

Musika
22:30 Jaime Barkin
 Jaime Barkin musikari donostiarrak kontzertua eskainiko du, Txarridunan.

28 zapatua

Azken zapatuko feria
9:00 Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta
 Kalebarren plazan.
11:00 Txosnaren irekiera
 Kalebarren plazan. Mintxeta atletismo taldekoek jarriko dute txosna.
12:00 Kale kantariak
 Kalebarren plazatik irtengo dira.
12:30 Kandelak egiteko tailerra
 Kalebarren plazan.
Eguerditik aurrera Ganadu erakusketa
 Aita Agirre plazan.

4 barixakua

Bideo forum-a
21:30 'La memoria de los peces'
 Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Kontzertua
23:00 'The fugitives'
 Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
27 Etxeberria 28 Fernandez Goizez: Garita.	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)
29 Fernandez 30 Yudego 1 Zabaleta 2 Barrenetxea 3 Ibañez 4 Garitaonandia		

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez
 Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
 Tel: 943 756 142

Ibañez
 Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta
 Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

IDOTORBEKO JAIAK

27, barixakua
19:00 Jaien hasiera
21:00 Lagunarteko afaria
 San Pedro, elkartearen.
23:00 V. mus txapelketa

28, zapatua
17:00 Euskadiko Enduro Motor txapelketa

17:00 Bolo txapelketa
 Atsaldean, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak
20:00 Triki-kalejira
21:00 Lagunarteko afaria
 San Pedro, jatetxean.
22:30 Gaupasa
 Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin.
 Goizaldean Txokolatada

29, domeka
11:00 Prozesioa eta meza
12:30 Pilota partidak
 Lagunak elkarteak antolatuta.
14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria
14:00 Paella herrikoia
16:30 Umeentzako jolasak eta bolo txapelketa
17:30 Idi-demak



FELIPE ATRIO DAQUINTA

2014ko ekainaren 17an hil zen, 44 urte zituela.

Zure oroimenak indartzen gaitu.

Spool-eko LAB





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tallerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



Doctor Antonio Murillo
Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta
Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatus Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatusa. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**
Hortz-Estetikan Diplomatusa. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

MUTUAK ETA ASEGURUAK
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!

